



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2021eko azaroa

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Xamar

(Garralda, Nafarroa, 1956)

Juan Carlos Etxegoien Juanarena "Xamar", irakasle eta idazle nafarra da.


Xamar goitizena jaio eta hazi zen baserritik datorkio, Xamarrena baserria. Frankismoaren garaian jaioa, gaztelera izan zuen ama hizkuntza eta 20 urte zituela hasi zen euskara ikasten

Erreferentziazko hainbat liburu idatzi du euskararen historiari buruz. **Orhipean: Gure herria ezagutzen, 1898, Garralda** (Fundación Pablo Mandazen, 1998) eta **Orekan. Herri eta hizkuntzen ekologiak** (Pamiela, 2001).

Hizkuntza eta hizkuntzaren inguruko gaiez arduratuta, han hemen ikastaroak eman ditu eta Euskokultur fundazioaren patronatuko kide da, besteak beste.

2019. urtean Saiakera arloko Euskadi Saria irabazi zuen, **Etxera bidean** liburuagatik.

Etxera bidean



—Pero... ¿por qué hablas así, mi chico?

Gure amatxi Bitorianaren bapateko deserotasuna nabaria zen, amatxi eta biok paseatzera atera ginelarik...

Garralda (Aezkoa ibarra, Nafarroa), 1980. urtean, amatxi euskaldun baten harridurak eta deserotasunak ez zuten mugarik, ordu artio erdalduna zen iloba lehenbizikoz Euskaraz mintzatu zitzaionetik. Horrela hasten da Frankismoan sortu, hazi eta hezitako belaunaldi baten istorioa, jatorriz zegozkion hizkuntzaren eta kulturaren gabeziak ohartuta, haien berreskurapenean murgildu zelarik.

Memoria historikoa ez da gerra kontuetara bakarrik mugatu behar, Xamarren iritziz, ondorioak hura bizi izan ez zutenengana ere hedatu zirelako urtetan. Mintzaira ikasten, historia ezagutzen, herri kultura baloratzen... galdutakoaren bila, 70eko hamarkadan, aetz gazte multzo bat abiatu zeneko sentimenduak nahas-mahas ageri dira narrazioan: ez izatearen minetik aurkikuntzaren bozkariora,

ezjakintasunaren ahalketik errudunen kontrako suminera, behartutako etena gauzatu zuen belaunaldiarekiko haserretik, haren aldeko miresmen mingotsera, ezagutu eta pairatu zuenagatik...

Bidenabar, Xamarren kontakizun autobiografiko honetan, topikoak hausten dituen Aezkoa ibar liberal eta antiklerikala ezagutuko dugu, Orbaizetako arma-olaren historian gara murgilduko, bertan

finkatutako estatu-mugaz gaineko harremanetan barneratuko eta, tamalez, abantxu betikoz galdurik den bertako Euskara dugu dastatuko.

Funtsean, bortuetako Euskal Herri ezezagun horretan barna bidaia argigarri bat egiteko gonbidapena.

Xamarren idazlanak

Orhipean: Gure herria ezagutzen (1992)

1898, Garralda (1998)

Orekan: Herri eta hizkuntzen ekologia (2001) **801 XAM**

Euskara jendea: Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza (2006) **809.169 XAM**

Etxea. Ondarea, Historia, Mintzoa (2016) **72 XAM**

Ettxera bidean (2018) **M XAM**

Elkarrizketa Xamar idazleari

barren.eus, 2019-04-12

...

Zergatik idatzi duzu liburua? Zertarako?

Lehenengo helburua Aezkoa ibarra ezagutaraztea zen. Nafarroako ekialdeko mendietan –hala edo hola– euskara atxiki duen azken ibarra da eta ez da gure letretan ageri. Gainera, Aezkoak baditu ez ohiko diren ezaugarri berezi batzuk: hala nola, ibar liberala eta antiklerikala izatea, tradizio karlista eta elizkoitik nabarmenki aldentzen duena.

...

Ettxera bidean da liburuari jarri diozun izenburua. Orhipean liburuan atal bat eskaini zenion etxeari. 2016an, berriz, Etxea liburua argitaratu zenuen.

Zer da etxea euskaldunontzat?

Etxea dena izan da gure kulturen zenbait mendetan; gure gizartearen oinarritzko erakundea izan da. Kasu honetan esanahi metaforikoa dauka; "etxera" itzultzea erdaldun hazitako jende batek bere sustraiak eta mintzaira berreskuratzeko egindako bidaia da. "Atzeritik etxeratzeko" bidea da, liburuak azalean ageri den bezala.

...

Zerk bultzatzen du Garraaldako gazte bat herriko nagusiengana joan eta beraiekin orduak eta orduak pasatzera? Zeren bila, Xamar, Garraaldako etxeetako sukalde eta atarietan?

Lapurtu ziguten herria ezagutzeko egoten ginen herriko nagusiekin. Guri Garralda euskalduna ebatsi ziguten: hizkuntza, kultura, istorioak, ohiturak, ipuinak, kontuak, gertaerak... Eta, une batez, nerabezaroan, deskubritu genuen hori guztia gure nagusien bizipenetan zegoela, haien jakintza zela. Hori dena jakiteko egoten ginen sukalde eta atarietan, baina horretarako hizkuntza gakoa zela ohartu ginen, euskara behar genuela. Beraz, euskara ikasten hasirik, gainerako guztiaren berri izatea nahi genuen. Guk galdutako "argazki" osoa nahi genuen... Nahia baino gehiago, beharra zen.

...

Egin zenutena ez zenutela euskararengatik egin entzun dizut. Zuengatik egin zenutela.

Euskara hizkuntza bat da, gramatika eta hiztegi bat; horrek ez du sentitzen. Baina hiztun komunitateak bai, hiztunok sentitzen dugu, eta gu horren parte ginen... Erdaldun heziak, baina komunitate horren parte ginen; huts egindako parteak. Geure burua sendatzeko ikasi genuen euskara; zegokigun komunitatera bueltatzeko. Geure buruaren alde ari ginen garbiki.

Zuek egindako ibilbideak ekarri zuen ondorio lazgarriarik herrian. Honela idatzi duzu liburuan: “Maite genuen jende zenbaitekin ere hausturak gertatu ziren. Herri osoko harremanak berrantolatzen ari ziren emeki. Argi zen, urtetan lurperatutako identitatea azaleratzerakoan, bortxazko berdintasun eta batasun faltsuak hautsi egin ziren”.

Bai, gaiak zatitu egin zuen herria nabarmenki: euskara eta gure kulturaren alde zeudenak, alde batetik, eta kontra zeudenak, bestetik. Zatiketa honetan preziatzen edota maite genuen zenbait jende kontrako alorrean gelditu zen, eta penagarria izan zen. Ebidenteki, bi aldeak nabarmenak dira gure herrietan, baina baita nazio mailan ere, egunero politika munduan ikusten dugun bezala.

...

Liburua irakurtzen hasi eta berehala ohartu nintzen irakurtzen niharduen euskara ez zela orain arte idatzi duzun liburuetan erabili duzuna. Hasieran apur bat kostatu zitzaidala ere aitortuko dizut.

Pertsona nagusiak mintzo direlarik, Aezkoako euskarari utzi dut testua. Beste gauzen artean, dagoeneko desagertutzat eman daiteke hango euskara, eta euskara hori ere ez da ageri gure letretan. Utzi nahi nuen testigantza hori, Bonapartek eginaraziko katiximak baino zerbait xamurragoa eta interesgarriagoa izan zezan publiko zabalak. Eta, gizona, ez da hain zaila! Euskara da! Segur naiz (eta dagoeneko hala esan didate) gure hizkuntza maite duen orok gustura ezagutuko duela ekialdeko azpieuskalki arkaiko (omen) hori, Bonapartek eta Azkuek hain maitea zutena.

Zuen amaxirekin hasi eta amaitzen da liburua. Zergatik?

Amatxiren hitzak, lehenengo aldiz euskaraz egin nirenean, iltzaturik gelditu zitzaizkidan gogoan: pero, ... ¿por qué hablas así mi chico?. Orduan ez nintzen ohartu esaldi harek erakusten zuen dramaz. Baina, berrogei urte pasa ondoren, esaldiaren garrantzia agerian jarri zait garbiki. Ez nuen dudarik: gure amaxirekin hasi behar zuen liburuak eta, biribiltzeko, amaxirekin bukatu behar zuen.

Amaitzeko, eman Etxera bidean liburua erosi eta irakurtzeko arrazoi bat.

Liburua Euskal Herri ezezagun bat ezagutzeko gonbitea da alde batetik, eta, bestetik, bere sustraiak berreskuratu nahi dituen belaunaldi baten istorioa kontatzen du. Etorkinen seme-alaba batzuek (Jon Maiak, Sonia Gonzalezek...) kontatu dituzte beren ibilbideak eta sentimenak gure hizkuntza eta kulturaren barneratzeko, baina ez zen etorkina izan behar egoera horipairatzeko. Nik horren lekukotasuna ere utzi nahi nuen.

Kritikak esandakoak

“... Pirinioetan kokatua, Frantziako eta Espainiako estatuak bereizten dituen mendilerroaren magalean, eta Euskal Herriaren ekialdeko mugatik hurbil, espazioak markatutako idazlea dugu. Izan ere, idazlearen jarreraren pertsonak beren lurrari lotuta daude, eta lotura horrek zehazten du pertsonen identitatea. Baina lotura hori ez da bakarrik lotura geografikoa. Hau guztia, idazlanaren planteamenduaren azpian dago, bertan kontatzen direnak oinarritzen eta zedarritzen. Orrialde hauek memoria pertsonaletik abiatuta, eskualdearen memoria berreskuratzeko asmoz aurrera eramaten den prozesua azaltzen zaigu...Istoriak eta historiak, batzuetan gogorak (herria XIX. mendearen amaieran kiskalita geratu zenekoa; gerra osteko urteak) plazaratzen dira hemen, jende xumearen ahotik jasota. Eta horrela, Xamarrek etxerako bidea erakusten digu, eta horrek identitatean sakontzea ere esan nahi du, goitizena etxearen izenetik hartua du-eta...”

Javier Rojo / El Correo, 2018-10-21

Erabilitako iturriak

Wikipedia

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Xamar>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7994>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=7530>

Pamiela

<https://www.pamiela.com/index.php/colecciones/euskara/saio/saio-eta-testigantza/etxera-bidean-detail>

Argia

<https://blogak.argia.eus/mikel-asurmendi/2020/03/27/izatera-bidean/>

barren.eus

<https://barren.eus/albisteak/euskara/3989-xamar-geure-burua-osatzeko-ikasi-genuen-euskara-zegokigun-komunitatera-bueltatzeko>